

Amasa-Villabona... Bai iragan ona!


Lumain

Desagertutako txokoak

17 zbk.

2006ko maiatzaren 7a

Amasako eta Villabonako ikuspegia, airez ateratako irudian.



Urteak aurrera joan ahala, herriak handitzen doaz eta zabaltzen; errepideak, etxeak, fabrikak, dendak eta gainerako zerbitzuak nonahi. Trafikoa eta kutsadura gero eta handiagoa... Eraikitze eta antzaldatze prozesu basati hura ezagutu ez genuenok, argazki bidez ez bada, ezin

imajina paraje berde hura. Errotak, garbilekuak, karobiak, bordak, soroak, zelaiak eta zuhaitzez inguratutako pasealeku entzutetsu hura. Gaurko zenbakian, antzinako Amasak eta Villabonak gordetzen zituzten ezkutuko txokoen berri dakargu. Zuen gustukoa izango delakoan, jarrai-jarrai irakurtzen.

ERROTAK, ALEA TXIKI-TXIKI EHOZ

Liburuetan, antzinako erretratuetan edo museoetan ikus daitezke errotak egun. Garai batean ugari ziren eta funtzio garrantzitsua betetzen zuten, gainera. Amasa-Villabonako nahiz inguruko herrietako hainbat erroten zerrenda azaldu dute jarraian Lumaneko kideek: "Sacengo zubiaren ondoko errota oso ezaguna zen Villabonan, Arroa zuen izena. Errotaren eraginez, Villabonako auzo batek Arroa izena hartu zuen, eta geroago, Errota izena ondoko auzo berriagoak. Agaraitz auzoan zegoena, Agaitzko errota moduan ezagutzen zen. Manuel zen hango errotaria. Herriaren beste puntan, ameztoitarren etxe ezagunaren alboan, Sorredore errota zegoen; Amasako mugetan. Zizurkilen, berriz, Loidi errota, egun Behibategi jatetxea dagoen horretan kokatzen zen. Akaizko errota ere bazen Zizurkilen, gaur bakailoa saltzen duten inguruan. Olentzotik gora abiatuta, Zizurkilgo goiko aldean, Alkaniz errota zegoen eta Asteasun, Pello errota zen nagusia. Alkizan ere bazen errotaren bat edo beste. Andoainen Sasierrota zen ezagunetakoa".

Eta zein ote zen errotaren funtzioa? "Aurrenetik, artoa ehotzeko erabiltzen ziren errotak. Garia 41 tik atzera-edo ehotzen zen; ogiaren miseria etorri zenean. Beno, lehen-lehenago ere garia ehoko zen baina, bolada batean ez zen garirik egiten". Errotariek txikitzen zuten alea, buelta eta buelta. "Errotarriak handiak ziren. Bat azpian eta bestea gainean. Gainekoa ibiltzen zen bueltak eta eginez-eginez, erdira erortzen zen alea. Eta eginez-eginez, kanpora ateratzen zen. Kanpoan txorro txiki bat izaten zuten eta txorro hartatik ateratzen zen irin askea". Artoa eta garia ehotzeko harriak bereziak zirela aipatu dute segidan hizlariek, "artoa ehotzeko harriak ez zuten garia ehotzeko balio. Formak biek berdinak izanagatik, garia txikitzeko harria berezia zen; finagoa". Hasiera-hasieran, urarekin egiten zen lan errotetan. Urte luzetan, errotako lan guztia eskuz egiten zen arren, geroago berrikuntzak iritsi ziren hainbat lekura, "lehenengo errota elektrikoa Manuel errotariak jarri zuen, Agaraitzen".

Errota bakoitzak zuen bere nagusia eta lanbide hartatik ateratzen zuten bizimodua.

"Errotariak ez zuten irinik saltzen. Laka kobratzen zioten baserritarri. Kilo kopuru bakoitzeko zati bat kentzen zuten. Pentsa, berrogeita hamar kilo ale eramaten bazenuen, bost bat kilo irin-edo gordeko zuten beraientzat. Artoa edo garia ehotzera eramaten zuenak, ez zuten batere ordaintzen; baina trukean, irin kilo gutxiagorekin itzultzen zen etxera". Eta nor joaten zen errotara? "Garia edo artoa, alea zeukana gerturatzen zen errotara. Baserritarra". Errota aukera bazegoenez, bakoitzak aukeratzen zuten eta pikatu berritan, irin txarra ateratzen zen. Harria goxatzen zen garaian, bere onera etorritakoan, irina hobe. Harriaren momentuaren arabera, errota batera edo bestera joaten zen jendea". Batzuk Asteasura, besteak Amasa edo Villabonara, Zizurkilera..., Alegiraino joaten zenik ere bazen. Errotariak, noski, irina saldu ere egiten zuten. Batzuetan, beste nonbait saltzeko. "Nire andreak Donostiako Bretxa merkatuan saltzen zuen irina, taloak egiteko-eta. Errekadera moduan ibiltzen zen" esan du Martinek.



Errekaren alboan Sorredore errota. Atzeraxeago, Etxe-Ondo

Baserrian bizi zirenek garia edo artoa eramaten zuten ehotzera, baina kalean bizi zirenak irina eroztera joaten ziren errotara.

"Bi kilo edo hiru kilo..., taloak egiteko behar zen arta-irina erosten genuen. Guri diruaren truke ematen ziguten irina. Base-

rritarrei kendutako laka saltzen ziguten guri. Hori zen errotariaren irabazia. Hortik zuen negozioa".

ERROTARA, ASTOAREN EDO MANDOAREN GAINEAN



Pepita Lasa

"Astoa hartuta ez, ni mandoaren gainean joaten nintzen Alegira"

"Gu umeak ginela joaten ginen errotetara". Gurasoekin? galdetuta, "ez, gurasorik gabe" erantzun dute. "Astoa hartuta. Astoaren gainean zakua lotu eta tira aurrera. Mutil eta neska koxkor asko ikusten zen errotarako bidean, astoaren edo mandoaren gainean". Maritxu Mendizabalek bere oroitzapenak ekarri ditu mahaira, "ni askotan joaten nintzen Zizurkilgo Loidi errotara. Askotan. Estatuak behartuta, errota asko eta asko egon zen itxita gerra ondorenean. Zizurkilgoa bakarrak aurki zitekeen zabalik inguruan. Amasatik jaitsi, utzi esnea Villabonako letxerian eta zaku hutsik gabe baina, sesto beteak hartuta joaten nintzen errotara, astoaren gainean. Errotarako bidea partikularra zenez, ez zuten pasatzen uzten eta bide luzea egiten nuen helmugara iristeko. Izugarritzko lokatza egoten zen, gainera. Loidira ailegatutakoan, igual zazpi edo zortzi lagun egoten zen aurretik zain. Ondorioz, ilaran itxaron egin behar. Bost bat kilo artoz betetako zakua utzi eta hurrengo egunean joaten nintzen arta-iri-

naren bila. Sanestebandik, Sorabillatik, Villabonatik, Zizurkildik..., txoko ezberdinetako jendea biltzen zen". Gerra eta geroko garai jakin horretan bezaz, errota gutxi batzuek besterik ez zuten aterik zabalitzen. "Errotak libre ez zirela argudiatuta, guardia zibilak etorri eta itxiarazi egiten zituzten. Horrelaxe, gaia eduki eta irinik egiterik ez". Ahal zen moduan moldatu behar, bezaz. "Amasako Elizaldeko amona, zaldia eta karroarekin joaten zen Alegi edo Itsasondoko errotara. Halako batean, tranbiak jo egin zuen bidean zihoala edo zetorrela". Behin baino gehiagotan joan izan zen Pepita Lasa ere Alegira. "Astoa hartuta ez, ni mandoaren gainean joaten nintzen Alegira. Guk garia edukitzen genuen, bezaz, garia eramaten nuen nik errotara. Haraino

joan eta trukean emateko irinik gabe egokitu ziren behin edo behin. Ondorioz, hurrengo egunean itzuli egin behar berriro". Irurako sarreran ere egiten zuten gari-irina, "Irurako Isidronean gari-irina egiten zuten eta hara ere jende ugari joaten zen". Inguruko herrietatik Villabonako errotetara ere etortzen ziren, "Gerra ondorenean, Andoaindik oinez etortzen ziren Agaitzko Manuelengana irina eroztera. Gure andreak askotan kontatzen zuen istorioa: Asto bat arra eta bestea emea, zakuak bota lurrera. Atzekoak aurrekoarengana igo egin nahi eta, ostikoka... Festa ederra izaten omen zen bidean" azaldu du Martinek. Solaskideek astoen arteko borroka bat baino gehiago kontatu dute jarraian: asto batek nola ito zuen bestea Amasan...



Oria ibaiari itsatsita, Arroa errotaren arrastoak.

BORDAK, MENDIKO BABESLEKUAK

Bordak mendietan izaten ziren; baserrien ondoan, etxeordeak. "Bordak mendian ezagutu ditugu; garoa edo belatza zegoen tokian. Belar ondua gordetzeko erabiltzen ziren batik bat. Mendira lanera joan eta euria egiten zuenean, bazkaltzeko eta lo kuluxka egiteko ere erabiltzen ziren. Hori xe; bai, bai, mendian eguraldi txarragatik babesteko ziren nagusiki bordak". Etxearen kontran, etxeordeak. "Etxeordeetan belarra eta trasteak gordetzen ziren; lantresnak, bereziki".

Amasamendin borda bat baino gehiago aurki daiteke oraindik ere, "Amasako borda horiek egin zirela zenbat denbora da oraindik? Gerra denboran-edo berritu egin ziren asko, baita borda berriak egin ere. Otzarretan 'xahar-xaharra' bakarra zen lehenago eta, berria egin zuten gero. Ondon ere bai. Kaskabeltzaren borda, Arantzako borda, Etxezarretako borda... Arantzabikoek ere bazuten borda mendian goian, baita Seisorokoek ere. Loatzon Lizarretako borda kokatzen zen eta Loa-

tzoren atzean, Atxupiko borda. Horiek denak Amasamendin altza zituzten 40tik 50era. Berriak eraikitzeaz gain, lehenago eraikitakoak ere bazeuden, eta haiek, berritu egin zituzten". Gaur hobeak izango dira, baina borda asko zegoen orduan. Villabonan ez zen bordarik. "Baratza inguruetan ezta txabolarik ere. Begira, begira argazkiak; hemengo terrenoetan ez da bakar bat ere ageri. Geroago ezagutu dugu txabolismoa", bat etorri dira hizlariak.

Desagertutako txokoak

Desagertutako txokoak

MALKARRA, EZKI ZUHAITZEZ INGURATUTAKO PASEALEKUA

Garai batean, Villabonako paradisua zen Malkarra. Ezagutu ez genuenok, entzundako aipamenekin irudikatu behar zuhaitzez inguratutako pasealeku hura, "dena hantxe. Villabonako paseoa zen, oso maitea". Kantua ere bazuen, ez zen hauntzaren gauerdiko eztula, ez horixe; "Villabona tiene cosas que no tiene el mundo entero / tiene Malkarra tiene Otsabi y el nuevo paseo de Sacem". Eta nolakoa ote zen, bada, Malkarra? "Bide bat. Esertzeko harrizko aulkiak zituen; hiru bat leku ezberdinetan behintzat bai. Bat aldapan, Arrillagarako bidea hasten zen horretan; mugan, hortxe. Beste eserlekuak eliza bitartean zeuden". Pasealekuak bidegurutzea zuen aurrera joan ahala, "beheko bidea zen bata eta behetik gora, Arregi baserrira joaten zen bidezidorra bestea. Astoarekin-eta hortik ibiltzen ziren baserritarrak, pinu tartetik". Eliz atzealde horretatik abiatu eta aurrera joateko aukera ematen zuen, beraz, batetik. Bestetik, Arratzainera igotzea ere posible zen, Arregi baserritik barrena, bidean gora eginez.

"Arregira igotzeko bidea oinezkoentzat edo astoekin ibiltzeko bazen, Arratzainera igotzeko, gurdi-bidea zen; bai, herri-bidea". Zuhaitzez inguratzen zuten bide guztia, "pinua asko zegoen baino, gainaldean. Behean ezkiak errezkan". Pakita Lasa, Barriola etxean bizitu zen zazpi urte bete zituen arte, etxetik atera eta parez parez zuten Malkarra. "Paseatu, jolastu... dena hantxe egiten genuen. Han bizi ginen gu. Etxean ez bageunden, Malkarrean egongo ginen; besterik ez genuen eta. Garai hartan ez ginen plazara ere etortzen". Autoen joan etorririk gabe, jolaserako gune ezin hobea zuten, "eskolatik irten eta Malkarrera! Soka-saltoan, tabaketan... dena jolasten genuen han. Gordeketetan ibiltzeko ere gune aproposa zen, beheko soroak inguratzu arbustuak zeuden eta haien artean gordetzen ginen".

Beheko bidean harrizko esertokiak eta losazko pretilak zeuden. "Jende askok eserialdi luzeak egiten zituen, lasaitasun handia baitzegoen. Beste batzuk, umeak

hartuta joaten ziren hara. Malkarra jendez beteta eta jendez beteta egoten zen. Ez asteburuetan soilik, egunero baizik".

N-1 errepidea egiteko bota zuten Malkarra, "pena handia izan zen hura galtzea. Hantxe, pasealekuaren gainean egin zuten kamioa. Elizaren inguruan, Malkarraren gainaldean, txaletak ziren eta baita mojen eskola zaharra ere. Argazki zaharretan garbi-garbi ikusten dira. Parean ikusitako guztia bota zuten, baita aldizkariari izena eman zion Lumane etxea edo Etxauntxiki baserria ere. Soroak puskatu zituzten... Herria hautsi".



Pakita Lasa

"Paseatu, jolastu... dena hantxe egiten genuen. Han bizi ginen gu"

MALKARRA ETA INGURUA ARGAZKI BIDEZ



Garate etxearen aurrealdea ageri da argazkian. Garatetarrak bizi ziren bertan. Saizar etxearen baratza azpialdean ageri da, ondoan txabola duela. Harresiaren bestaldera, peretzarren baratzea; ondoan, garai bateko magnolio ederrarekin. Zuhaitz artean, Malkarra pasealeku; bide zelaia, laua.



Ormazabaldarren baratzea eta Sorrondegi aroztegiaren atzealdea ageri dira irudiko zelaian. Aurrerago, Amenabar etxea. Goian oilategi lanetarako erabiltzen zuten etxola. Goraxeago Malkarra; inguru horretan zegoen bidegurutzea: Txermin aldera edo Arratzain aldera jotzeko aukera.



Barriola etxea, Urdapilleta etxearen atzean zegoen kokatuta. Jauregitarrak bizi ziren han. Oiloak zituzten, baita soroa ere. Argazkiko baratzea Urdapilleta etxeok gobernatzaren zuten. Etxea eta baratzearen artean, egun ere bizirik dagoen bidea. Barriola etxearen atzealdetik jarraitzen zuten Malkarrak.



Urdapilleta etxearen atzean, bide elurtuan, ongi baino hobeto irudikatzen da Malkarra.

BASERRITARRAK, URTZABALDIK BARRENA

Otsabin ere bazen pasealekurik, ezta? "Pasealeku baina gehiago bidea, bidexka bat. Harrobia hor eta erreka. Zerrategia zegoen azpi horretatik igarotzen zen erreka, orain ere hor pasako da baina, tapatu egin zuten kamioarekin". Lehen orain baino ur gehiago etortzen zela aipatu dute hizlariak. "Salvadorak eta hortik hartzen zuten ura lehen. Garbitokia ere bazen ur hura aprobetxatzeko".

Sacem-go pasealekuak ez zuen inondik ere Malkarrak zuen famarik, "Sacem fabrika egin zutenean eraiki zuten bide hura. Ez, gu ez ginen Malkarrera bezala paseatzera joaten. Neska edo mutil kozkorretan, bat edo bestek bizikletaren bat baldin bazuen, bizikletan ibiltzen ikastera joaten ginen". Sacem fabrika egin bitartean, inguru hura guztia soroz beteta zegoen, "fabrika egin aurretik, soroetarako bide bat besterik ez zegoen han". Eta zubia ere orduan altxa ote zuten? "Ez, ez; lehenago, 1933an. Eta Sacem, 1938-1939 urtean hasi ziren eraikitzen". Legarreta aldera joateko, beraz, egun baino ibilbide luzeagoa egin behar izaten zuten. "Salvadora papertegiaren eta Txuine etxearen artean, erreka gainetik pasadizoa zegoen. Urtzabal esaten zitzaion. Eta handik, Urtzabaldik pasatzen



Pello Iribar

"Salvadora papertegiaren eta Txuine etxearen artean, erreka gainetik pasadizoa zegoen. Urtzabal esaten zitzaion"

ziren auzo hartakoak ganaduak, gurdiak eta belarrarekin". Buelta handiagoa eman behar bazuten ere, bazen beste aukerarik. "Urak txikiak baziren, *en general*, Urtzabaldik pasatzen ziren baina, beheko zubitik ere bazegoen aukerarik, Zubimusutik". "Handik pasaz gero, Ubaretik barrena joan eta etorri beharko zuten Legarretara, ba?" galdetu du Maritxuk. "Bai, halaxe zen, bai", erantzun diote. Etxeberrikoak esaterako, zelaia etxearen parean izanagatik, buelta guztia eman behar izaten zuten Loatzo inguruko soroetara joateko". Inguru hartuta baserritar asko gogoratzen dute gurdia hartuta etxerako bidean, "Arantzastroki-koak, Belatekoak, Motxanekoak, Azkaingoak... denak hona etortzen ziren". Egun

besterik badirudi ere, terreno horiek guztiak ez dagozkio Zizurkili, Legarretako eta Ubare aldeko baserri horiek guztiak Amasaren baitan zeuden batzuentzat, Villabonaren mugetan besteentzat.

Amasan ez zegoen pasealekurik, "ez zegoen paseatzeko denborarik, bakoitzak bere etxearekin nahikoa zuen". Baina igande eta jai egunetan, eskolako paseoa Amasara izaten zen, "kamio nagusia egin aurretik, Aldapetan gora igotzen ginen Amasara. Behin kamioa egin zutenean, Santa Krutz ermitatik barrena". 1928-1929 urteen artean amaitu zuten Amasara igotzeko bide nagusia. "Aita gureak aldatutako arbolak omen dira hor saihetsean dauden makal eta plantano handi horiek" azaldu du Encarnak. "Landaketa egin zuenerako, hasiak ziren bidea egiten". Errepidea egin aurretik Aldapetan behetik gora igotzen ziren, beraz, "airoso asko igotzen ginen, bai. Marita Olaso-eta, ahots eder askoarekin kantari. Villabonakoa zen Marita baina Madrildik etortzen zen uda pasatzera. Anaia futbolariak zituen Madrilen eta 'beraneatzera' etortzen ziren Amasa-Villabonara". Familia gehiago ere etortzen omen zen Madrildik uda pasatzera, "oso gustura, gainera" gehitu dute parteideek.



Sacemgo zubiaren inaugurazioa, 30eko hamarkadako lehen urteetan.

Desagertutako txokoak

Desagertutako txokoak

BARATZEAK ETA SOROAK NONAHI



Maritxu Mendizabal

"Aipatu ditugun soro handi horietan artoa eta babarruna ereiten zen bereziki"

Egun etxez beteta dagoen herria soroz beteta zegoen lehen. "Soroak eta baratzeak? Etxeak baino gehiago ziren, bai horixe! Orain Eroski nola? Hori dena baratzea zen beste kaleraino. Tartean bidezidor bat izaten zen kale batetik bestera pasatzeko".

Egungo Txermin auzorik ez zen, baratzeak eta soroak ziren han. Kaleberrian ere, baratze ugari zegoen etxe artean. Zer esanik ez elizatik aurrera. "Egungo Arroa, Errota edo Larrea auzoetan ez zen ia ezer, baratzeak besterik ez". Imazen etxea, ospitala, Inurritaren txaleta eta Etxauntxiki, hor ez zegoen besterik. Atzean, Igerategi eta orain dauden baserriak. Aurreraxeago, Sorredore errota kamioaren kontra, errekararen albo batera eta ondo-ondoan ameztoitarren Etxe-ondo. "Herriko etxerik zaharrenetarikoa eta dotoreenetarikoa da. Kapila zuen etxe bakarra zen. Aurrerago zegoen Larre baserria, besteak beste".

Amasan, egun baino baserri gehiago

zegoen orduan, "Amasan baserri bakoitzak zuen bere baratzea". Eta aurrez ere esana dugunez, baratzeetan ez zen gaur adina ereiten. "Aipatu ditugun soro handi horietan artoa eta babarruna ereiten zen bereziki. Baratzeak zituen kaleko nahiz baserriko jendeak, patata, bainak, azak, porruak, tipulak eta beste ezer gutxi ereiten zuen. Letxugak ere udan bakarrik aldatzen ziren eta azenariorik-eta ez zen izaten". "Tomatea gordinik jaten soldadutzan ikasi nuen nik. Bitartean hemen norbait tomatea jaten ikusten baguen, 'uff, *kastellanoak*, tomateak gordinik jaten' esaten genuen" azaldu du Pellok, "gero, gero ikasi genuen tomatea entsaladan jaten".

GARBILEKUAK, ERREKAK ETA ITURRIAK

Aurreko zenbakian aipatu genuenez, Villabonan Berdura plazan zegoen garbileku nagusia eta egungo kiroldegiaren ondoan, beste txikixago bat. "Dotorea zen Berdura plazakoa. Bestea errekararen ondo-ondoan zegoen. Altzonetik zetorren errekarako ura erabiltzen zen garbiketarako. Orain ere hortxe pasako da kamioaren azpitik. Egunen batean igual aterako da. Bai, bai. Olaederra eta Subijanaren artean hortxe pasako da". Hainbat etxek garbileku partikularra zuten, "Gure Barriolanean ere bazen etxe koentzako garbileku, goian eta behean. Sukaldeko leihoaren paretik ikusten zen" azaldu du Pakitak, Malkarraren ondoko etxebizitza gogora ekarriz. Ubare auzoan ere ba omen zen garbileku eta inguruan bizi zirenak biltzen ziren bertan. Amasako baserri batzuek garbileku partikularra zuten; Mikel Igartzak, esaterako. Bestela, Amasak bazituen herriarentzako garbilekuak ere. "Elizaren ondoan zen garbitoki bat eta baita Goikoetxe baserriaren ondoan ere. Kamioan, oraindik ere han dago hura; orain, txabola berriarekin, gainera! Zeberio baserriaren azpildan ere, errekararen ondoan hantxe dago oraindik beste garbileku bat. Garbileku horretan inguruko jende asko biltzen zen. Otxandolako iturrian ere bazen aska eta garbileku".

Eta errekarako urekin jarraituta, herriaren azpialdetik igarotzen den errekatxo bat baino gehiago dagoela azaldu dute, "Otsabitik datorren horrez gain, Sorredoreko hartan errekararen zati bat lur azpitik pasatzen



Encarna Jarza

"Langosta hezur franko geratu zen depositu haren inaugurazioa egin zenean. Agintariek ederki ospatu zuten, bai horixe!"

da. Beste zati bat agerian dago, bai. Eta, hobe horrela. Erreka hori Troskatik datorrena da. 53ko uholde haietan ere izango zuen zerikusia erreka horrek. Ur asko etorri zen. Pentsa, Floreaga baserria bota egin zuen urak". Ez zuen indar makala ekarriko, ez. "Loatzo aldetik ur asko etortzen da. Villabonara Sorredore aldetik eta Otsabitik iristen dira errekatxoak. Ubeungo erreka haruntzago dago, baina hura ere, kamioz behera dena tapatuta dago; bariantearen azpitik pasatzen da". Naturaren indarrak hitz egin dute segidan, "errekak tapatu arren, urak bere bidea egiten du, eta nork daki; agian, berriz ere, kanpora aterako dira noizbait. Naturak berea eskatu egiten du, zera!".

Villabonan, 'bi iturri' ek ematen duten ura maite askoa da, "Arratzainen sortzen da ur hori. Bertako menditik etortzen da. Oso ur ona da. Gutxitu bai baina, inoiz ez da agortu iturri hori. Azken bi uda hauek lehor

samarrak izan badira ere, han ez da batere nabaritu". Ur hori sortzen zen aska ere, N-1 errepeidea egiteko kendu egin zuten, "aska kenduagatik, ura azaldu egiten zen eta orduan egin zuten Villabonan iturri berria. Iturri hori hiru *txorrotara* jarrita dago orain. Aurretik, goiko askara ez zen inor ur bila joaten". Kontuan hartzeko moduko gogoea egin dute solaskideek, "goiz eta gau eman eta eman aritzen da iturria. Ur asko eta asko galtzen da alferrik eta pena ematen du horrek. Depositu bat jarriz gero, aprobetxa ote liteke galtzen den ura?". Aipatu iturriaz gain, Villabonan bazen iturri gehiagorik ere, "kalean iturri bat baino gehiago zegoen. Toloxaneko iturria bat; Toloxa dendaren ondoan, egun Gurrutxaga denda dagoen horretan. Zubiaurren ere bazen iturria. Iturria eta baita aska ere. Taxiak egoten diren horretan, hain zuten ere. Askako ura ganaduek erabiltzen zuten batik bat eta iturrira bai, joaten ginen ur bila. Plazan ez baina, kooperatibaren parean ere bazen beste iturri bat. Orain ere hantxe dago, haurtzaindegiaren atzealdean". "Ur horrek ere fama ona izan du" aipamenari, "orain artean behintzat inork ez du kontraktorik esan. Aran-errekako ura izango da seguru asko", erantzun diote. Mikel Igartza etxearen azpialdean omen dago Aran-errekako depositua, "langosta hezur franko geratu zen depositu haren inaugurazioa egin zenean. Agintariek ederki ospatu zuten, bai horixe! 1925 urte ingurua izango zen", zehaztu du Encarnak.

Amasako iturriko urari Ur-goxokoa esaten zitzaion, "Uxamenditik Onddora bitarteko gune horretan sortzen da. Amasako plazako iturriaz gain, ur hori bera

zeukan hartuta Elizalde baserriaren ondoan iturriak ere.

Villabonako plazan ez zegoen iturririk, "baina garbilekuak bi iturri eder zituen

kanpoaldetik, kamio aldetik. Plazan jolastan ari ginela, egarritzen baginen, hara joaten ginen ura edatera". Aukera ona zuten, beraz, haur eta gaztetxoek.

PUTZUAK ETA ITURRIAK, UR FRESKOA ETA GORRIA



Martin Laskurain

"Elduain aldera abiatuta, lurra gorritzen duen iturria dago; ur herdoildua ematen duena"

Loatzotik Uzturrera abiatuta, bidegurutze bat topatuko dugu. Langa pasa eta esku-bira hartuta, Atxupi baserria zegoen, "oraindik ere han egongo dira paretak akaso. Atxupiko azek izugarritzko fama zuten. San Martinetarako edo Gabonetarako Atxupitik ekartzen zituen azak batek baino gehiagok". Atxupiren inguruan putzu bat ezagutu ote zuten galdetutakoan, "han ez dugu putzurik ezagutu, ezta iturrikerik ere. Baina inguruan sortzen zen ura Irurara jaisten zen eta orain ere, hala jaitsiko da". On-ddotik behera abiatuta, Kanalen azpialdean 'Askiko plaia' esaten

zioten putzua zegoen. "Hantxe egongo da oraindik ere. Presa moduko bat zegoen gune horretan eta jendea putzura sartzen zen bertan egokitzen zenean".

TXOKO POLITAK, ETXE DOTOREAK

Egun desagertuta dagoen beste txoko politen bati buruz galdetutakoan, "Txermingo gaina oso leku polita zen. Ttontorrera igo eta Villabona guztia ikusten zen, baita Aduna aldea ere. Merienda hartu eta arratsalde-pasa askotan joaten ginen hara. N-1 errepeidea egiteko puskatu zuten hura ere. Txermin izena zuen mendixka hark; hura desagertu zenean, auzoari eman zioten izena". Txoko polit gehiago bazegoela ere nabarmendu dute, "Arregi-gaina ere oso toki polita zen, baina Txermindik, askoz ere ikuspegi zabalagoa zegoen". Oraindik hor badago ere, Amasan Santa Krutz ermitaren ingurua nabarmendu dute. "Arantzastroki, Motxane, Belate, Amasarre, Azkain..., baserri inguru hori ere bai txoko polita! Villabonako beste auzo bat da hori" aipatu dute Pakitak eta Pellok. "Baina horiek denak Amasako elizara joaten ziren mezetara" gaineratu du Encarnak. Lehentxeago aipatu dugunez, muga kontuak ez dira oso argiak. Bakoitzak iritzi ezberdina du.

Villabonako etxerik dotoreenen artean, zalantzarik ez, Etxe-ondo aipatu dute hizlariek, "Ameztoiren etxea zen eleganteena dudarik gabe. Txuine etxea, egungo Kultur Etxea ere polita zen". Harrizko arkuekin osatutako etxe bat baino gehiago zegoen orduan, sarrera ederrak zituzten, sendoak. Horietako bat egungo Bizkaiko Aurrezki

Kutxa kokatzen den horretan zegoen. "Tentteneko etxea, Legarbarrena ere oso dotorea zen. Dilijentzia etortzen zengaraian, etxe azpiko arkupetik pasatzen ziren. Amasako baserrien artean, Arantzalde aipatu dute batetik, "etxe ederra zen Arantzalde. Pena izan zen erretzea. Larrañaga ere oso dotorea zen. Oraindik ere berdin-berdin mantentzen ditu antigualeko leiho txiki haiek. Musturi-azpi bestea, harria eta arkuak; antzinan

bezalaxe mantentzen dute, berdin-berdin. Horrela ezagutu genuen guk. Oraindik ere Amasan dagoen etxerik dotoreenetakoa izango da". Amasako nahiz Villabonako apaiz-etxeak ere aipatu dituzte. "Villabonako harrizkoa zen guzti-guztia, oso dotorea". Villabonan ez, baina Amasan, karobi asko zegoen. "Arreginean bazen, Mikel Igartzan, Larrañagan eta Musturi-Azpin ere bai, beste askoren artean".



Ubare baserria duela urte asko bota zuten

Hainbat txoko ezagun eta ezezagunen berri eman dute gaurkoan hizlariak. Atzoko Amasaren eta Villabonaren irudia argitzen lagundu dute. Amasa eta Villabonaren bi alderdi ezagutu dituzte; barea eta mugituagoa.



Pepita
Lasa



Pakita
Lasa



Pello
Iribar



Maritxu
Mendizabal



Encarna
Jarza



Martin
Laskurain

UTZIKO AL DIZKIGUZU ERRETRATU ZAHARRAK?

Hiru zenbaki besterik ez dira falta 20 zenbakiko bilduma honekin amaitzeko. Argitalpenarekin hasi ginenetik, erretratu zahar mordo bildu dugu eta egitasmoari liburu mardul batekin eman nahi diogu amaiera. Liburuak Amasako eta Villabonako erretratu zaharrak bilduko ditu bereziki, baina narrazioak ere bere pisua izango du.

Ba al duzu etxean liburuan argitaratuta ikusi nahiko zenukeen argazki zaharrak? Hala bada, jar zaitez gurekin harremanetan. Bulego berria izango dugu aurrerantzean; Karidadeberri etxean aurkituko gaituzue Zizurkilgo Bulandegi bidean. Maiatzaren 15etik aurrera hasiko gara argazkiak jasotzen, goizeko 10:00etatik 13:00era. Etorri aurretik, dei ezazue mesedez 943 696 450 telefono zenbakira.

ESANAK ZEHAZTUZ

Aurreko zenbakian, Sorondoenea sagardotegiko arduradunak Jose Joakin Ugartemendia bertsolaria eta Frantziska Irazia Garagorri zirela esan genuen.

Oker eman genituen, ordea, datuak. Sorondoeneako nagusiak Jose Joakin Sorondo Zalakain eta Frantziska Ignazia Garagorri Aduriz ziren.

...ETA HURRENGOAN ZER:

Igande eta bestelako jai egunetako ohiturak ezagutzen saiatuko gara hurrengo zenbakian. Jakiak, jantziak, galdu diren ohiturak... Ekainean banatuko da hemezortzigarrena. Ez ezazu festa Lusaineko aldizkaria irakurtzeko aukerarik gal; bi zenbaki besterik ez zaizkigu falta... bilduma bukatzen ari da.

Etxeniketak dotore-dotore Malkarra pasealekuan.



ARGITARATZAILEAK



Amasa-Villabonako
Udala



Manuel Larramendi
Kultur B. azkuna

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, Amasa-Villabonako Udalaren dirulaguntzaz. Ekoizlea: Erroitz B.M. Zuzendaritza eta erredakzioa: Ainhoa Arozena. Maketazioa: Maddi Trutxuelo. Argazkiak: Xabi Ubeda, Erretratu zaharren liburu (Larramendi Bazkuna) eta artxibo ezberdinak. Inprimaketa: Sortu grafikak (Zizurkil). ISSN: 1698-7330. Lege gordailua: SS-1289/04. Tirada: 1.400 ale.

EKOIZLEA



BABESLEA



Eusko Jauriaritza
KULTURA SAILA